

## Udalak Donostian errespetuzko bizikidetza akustikoa sustatzeko beste kanpaina bat jarri du abian

*Ekimenaren xedea da zaratak bizikidetzan duen eraginari buruz sentsibilizatzea eta hiriko espazio publikoan, garraioan eta lasai egoteko espazioetan jokabide arduratsuak sustatzea*

Donostiako Udalak zarataren inguruan sentsibilizatzeko beste kanpaina bat jarri du abian, "Errespetuzko bizikidetza akustikoa" lelopean. Helburua da atsedena, ongizatea eta herritarren arteko errespetuan oinarritutako bizikidetza sustatzen duten ohiturak bultzatzea.

Kanpainak eguneroko bizitzako hiru eremutan jartzen du arreta, hain zuzen ere kutsadura akustikoa gutxitzeko norbanakoaren portaera bereziki garrantzitsua den eremuetan. Horietako bat aisialdia eta espazio publikoaren erabilera da, eta, horretarako, kaleez eta plazez gozatzea eta auzokoek atsedean hartzea bateragarri egingo dituzten jarrera arduratsuak sustatuko dira. Bigarrena garraioa da, eta eremu horretan mugikortasunak sortutako zarata murrizten lagunduko duten ohiturak sustatuko dira. Eta, azkenik, *soinu-oasi* izenekoak daude, hala nola hondartzak eta parke publikoak, eta horietan pertsona guztientzako lasaitasun- eta errespetu-giroa egon dadin bultzatuko da.

Iñigo García Ingurumeneko zinegotziak adierazi duenez, «datuek berresten dute Donostia posizio onean dagoela kalitate akustikoari dagokionez, gure inguruko beste hiri batzuekin alderatuta. Hala ere, hori ez da helmuga bat, baizik eta erreferentzia bat, bizikidetza eta bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko lanean jarraitzera behartzen gaituena».

Kanpaina Gipuzkoako Ostalaritza Enpresarien Elkartearekin, Dbusekin eta kale-garbiketako zerbitzuekin lankidetzan egin da, eta kutsadura akustikoa murrizteko eta hiriko ingurumen-kalitatea hobetzeko udal-estrategiaren parte da.

Ane Ruizek, Gipuzkoako Ostalaritzako zuzendari exekutiboak, adierazi duenez, «bat gatoz errespetuzko elkarbizitza sustatzeko helburuarekin, eta uste dugu hiriko kutsadura akustikoari heltzeak erantzunkidetasun ikuspegi bat eskatzen duela: bizilagunak, bisitariak, mugikortasuna, ekitaldiak eta jarduera ekonomikoa hiriaren soinu-paisaiari laguntzen diogu, eta denok lagundu behar dugu hura hobetzen ere».

Esparru horretan sartzen dira, besteak beste, zarataren eta bibrazioen aurkako udal-ordenantza berria onestea, zarataren mapa estrategikoa egitea, zarataren

# Prensa oharra

## Nota de prensa

aurkako ekintza-plana egitea, isuri gutxiko eremua ezartzea, bizikleta-sarea handitzea, Dbuseko flota eta garbiketa-ibilgailuak pixkanaka elektrifikatzea, kale askotan abiadura 30 km/h-ra murriztea, edo jarduera ekonomikoen eta herritarren atsedinari eragin diezaioketen portaeren gaineko kontrola indartzea.

### **Herritarren pertzepzioan oinarritutako kanpaina**

Ekimena "Donostiako herritarrek zaratari buruz duten pertzepzioa" azterlanaren emaitzetan oinarrituta sortu da. Azterlan hori 2025eko abendutik 2026ko apirilera bitartean egin zen, donostiarrek hiriaren kalitate akustikoa nola hautematen duten jakiteko, zarata-iturri nagusiak identifikatzeko eta ongizatean duten eragina ebaluatzeko.

Azterlana egiteko, aurrez aurreko 407 elkarrizketa egin zaizkie Donostian erroldatutako 16 urtetik gorakoei. Emaitzen arabera, inkestatutako pertsonen % 48,65ek uste du Donostiako zarata-maila ertaina dela; % 30,22k, berriz, hiri zaratatsutzat jotzen du, eta % 21,13k isiltzat. Hala ere, beste hiriburuekin alderatzen denean, pertzepzioa nabarmen hobetzen da: % 53,56k uste du Donostia beste hiri batzuk baino isilagoa dela, % 37,35ek antzeko maila duela eta soilik % 7,62k zaratatsuagoa dela.

Azterlanak, halaber, biztanleria-taldeen arteko aldeak islatzen ditu. Oro har, emakumeek gizonak baino zarata-maila handiagoa hautematen dute, eta 41-60 urteko pertsonak dira kritikoenak kutsadura akustikoari dagokionez.

### **Auzoak espazio lasaiagozat hartzen dira**

Herritarrek beren auzoa baloratzen dutenean, emaitzak nabarmen hobetzen dira. % 53,57k uste du bere auzoa isila dela, eta % 27,52k, berriz, zaratatsua dela.

Igeldok balorazio akustiko hobea du, inkestatutako pertsonen % 100ek auzo lasaia dela uste baitute. Halaber, nabarmentzekoak dira Ibaeta (% 92,31), Bidebieta-Mirakruz (% 91,66) eta Aiete-Miramon (% 83,33). Beste muturrean daude Parte Zaharra (% 71,43k uste du auzoa zaratatsua dela), Amaraberri (% 49,09), Egia (% 42,11), Gros (% 40,39) eta Añorga (% 40).

"Hiriaren portaera akustikoa ez da homogenea. Zarataren geografia oso argia da, eta hiri-egituraren, erabilera-intentsitatearen eta mugikortasun-fluxuen ondorio da. Ingurumen-kalitate handiko eremuak daude, batez ere bizitegi-eremu periferikoetan eta ingurune naturaletan, eta beste eremu batzuetan, berriz, jarduera ekonomikoaren, turistikoaren eta mugikortasunaren kontzentrazioak presio akustiko handiagoa eragiten du», azaldu du zinegotziak.

### **Trafikoa murriztea, herritarren eskari nagusia**

# Prensa oharra

## Nota de prensa

Herritarrek egindako proposamenak, nagusiki, trafikoak sortutako zarata murrizteari buruzkoak dira. Iradokizun guztien % 29,98k hainbat neurri aipatzen ditu, hala nola ibilgailuen bolumena murriztea, kale gehiago oinezkoentzat jartzea, garraio publikoa eta bizikleta sustatzea, erdigunean ibilgailuen sarbidea mugatzea, hiriaren kanpoalderantz igartzeko trafikoa desbideratzea, abiadura radar eta nasen bidez murriztea, ibilgailu elektrikoak bultzatzea eta motozikletek sortutako zarataren gaineko kontrol handiagoa izatea.

Herritarren bigarren eskari handia zaratari buruzko araudia (% 16,95) betetzeko neurriak indartzea da, bereziki ostalaritzari eta aisialdiari dagokienez.

"Herritarren eskaerak eta abian dauden politika publikoak bat datoz argi eta garbi. Erronka ez da hainbeste zer egin behar den identifikatzea, baizik eta modu egonkor eta koherentean finkatzea dagoeneko abian dauden eraldaketak, bizi-kalitatean benetako eragin neurgarria izan dezaten", ondorioztatu du Garcíak.

### **Udal-zerbitzuetan txertatutako hobekuntzak**

Azken urteotan, hiri-zerbitzuen modernizazioan aurreratu da gehien. Udalak kale-garbiketako eta hondakin-bilketako flota nabarmen berritu du, ibilgailu eta makineria elektriko isilagoa eta jasangarriagoa sartuz. Makina berrien artean, bereziki aipatzekoak dira 38 Goupil ibilgailu elektriko, 4 kale-garbigailu elektriko, laguntza elektrikoak duten 6 zisterna, urez garbitzeko 4 ibilgailu elektriko, 21 haizagailu elektriko, eta koordinazio- eta ikuskapen-lanetarako hainbat ibilgailu hibrido eta elektriko.

Gainera, kontratu berriari esker, zabor-biltzeko kamioi % 100 elektrikoak ekarri dira, eta udal-zerbitzuetan erabilitako ibilgailu asko berritu dira. Guztira, diesel-motorrekin funtzionatzen zuten 58 ibilgailu kendu dira eta horien ordean modelo elektriko berriak jarri dira; horrekin, nabarmen murriztu dira, bai isuri kutsatzaileak, bai zerbitzu horiei lotutako kutsadura akustikoa.

Bestalde, *Bideberdea* proiektuan aurreikusi bezala Dbusen 12 eta 18 metroko autobus-flota guztia elektrifikatzean, Donostiako hiri-zarata asko gutxituko da. Autobus elektrikoek errekuntza-ibilgailuek baino askoz ere hots gutxiago ateratzen dute, % 80 isilagoak izan baitaitezke, batez ere abiatzean, azeleratzen eta abiadura gutxiko zirkulazio-faseetan. Beraz, kaleetako kutsadura akustikoa murrizten eta herritarrentzat lasaiagoak eta erosoagoak diren hiri-inguruneak sortzen lagunduko du horrek.

### **Bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko erronka**

Azterlanak ondorioztatzen duenez, Donostiak Espainiako hiriburu gehienek baino pertzepzio akustiko hobea du, baina kutsadura akustikoa oraindik ere hiri-erronka nagusietako bat da.

# Prensa oharra

## Nota de prensa



Emaitzek erakusten dute azken urteotan garatutako udal-politikak egokiak izan direla, eta agerian uzten dute aurrera egiten jarraitu behar dela mugikortasun jasangarria areagotzeko, trafikoa murrizteko, espazio publikoa hobetzeko, zarata-iturri nagusiak kontrolatzeko eta berdegune lasaiak kontserbatzeko jarduketetan, herritarrek osasunerako, ongizaterako eta bizi-kalitaterako funtsezko elementutzat jotzen baitituzte.